

**NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN
ARTEAN 2003. URTERAKO EGINDAKO HITZARMENA.
2002KO EKAINAREN 27AN SINATURIKO
ESPARRU-HITZARMENAREN ERANSKINA**

BILDURIK

Batetik:

PEDRO PEGENAUTE GARDE jauna, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.

Bestetik:

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, Euskaltzaindiko lehendakaria/euskaltzainburua.

2002ko ekainaren 27an Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean sinaturiko Hitzarmenak lankidetzarako oinarri orokorrak ezarri zituen eta bi erakunde sinatzaileen arteko konpromiso finantzario eta materialen esparrua arautu ere. Haren bigarren puntuan ezarritakoan jarraikiz,

HITZARTZEN DUTE

1. Euskaltzaindiak, bere batzordeek egiten dituzten jardueren barruan, Nafarroako Gobernuarendako, 2003. urtean zehar egin ditu eta 2003. urtean egin asmo ditu ondoko eginkizun hauek:

1.1. Berriazko izaera duten jarduerak:

a) Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egiteko bildu ziren Nafarroako 3 herri-rikoko grabazioak euskarritan paratu eta ematea, beti ere informazioaren pribatasuna errespetatuz.

b) Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko lehen liburukirako, Nafarroari dagokion edukia argitalpen bereiztu eta banandua ahalbidetuko duen informatika programaren berritzea. Lanek urte bateko iraupena izanen dute. Hortaz 2003. urtean zehar berritze horren lehen zatiari ekinen zaio.

c) Nafarroako euskalki baten gramatika bat («Baztango euskalkiaren gramatika») prestatzeko lanak abiatzea.

d) Nafarroako euskalkien hizkuntza ikerketetarako plan bati buruzko txostena egitea.

e) Bi libururen argitalpena, bi entitateak ados jarrita finkatutako irizpideei jarraikiz zehaztu beharrekoak.

f) Nafarroako euskalkien inguruko jardunaldiak prestatzea.

g) Biok adosturik, finkatuko den edozein.

1.2. Euskaltzaindiak garatzen dituen eta aurrekoen euskarri diren izaera orokorreko gainerako jarduerak.


2. Aipaturiko eginkizunak aurrera eramateko, Nafarroako Gobernuak, 2003. urtean, Euskaltzaindiaren esku, gehienez ere, 134.600 € paratuko ditu. Kopuru hau 2003. urterako luzaturiko 2002ko Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Orokorreko «Hitzarmena Euskaltzaindiarekin» izeneko 43000-4816-455100 kontusailaren kargura ordainduko da, 2003. urterako Hitzarmena sinatu ondoren.

Hitzarturikoa hala ager dadin dokumentu hau sinatzen dute, hirukoitzez.

Iruñean, bi mila eta hiruko uztailaren 3 an.



Pedro Pegenaute Garde,
UNIBERTSITATEETARAKO
ETA HIZKUNTZA
POLITIKARAKO ZUZENDARI
NAGUSIA



Jean Haritschelhar Duhalde,
EUSKALTZAINDIKO
LEHENDAKARIA

**ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO DE NAVARRA
Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/
EUSKALTZAINDIA PARA EL AÑO 2003.
ANEXO AL ACUERDO MARCO FIRMADO
EL 27 DE JUNIO DE 2002**

REUNIDOS

De una parte:

D. PEDRO PEGENAUTE GARDE, Director General de Universidades y Política Lingüística del Gobierno de Navarra.

De otra parte:

D. JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

De acuerdo con lo establecido en el punto segundo del Acuerdo suscrito entre el Gobierno de Navarra y la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia el 27 de junio de 2002 por la que se establecen las bases generales de colaboración y por el que se regula el marco de compromisos financieros y materiales entre las dos instituciones firmantes,

ACUERDAN

1. La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia ha realizado durante el año 2003 y se propone realizar, encuadradas dentro de las actividades que desarrollan sus diferentes comisiones, para el Gobierno de Navarra en el año 2003 las siguientes tareas:

1.1. Actividades de carácter específico:

a) Montaje en soporte y entrega de las grabaciones de 3 pueblos de Navarra que se recogieron para la elaboración del Atlas de las variedades locales del Vascuence-Euskararen Herri Hizkeren Atlasa. Respetando, en todo caso, la privacidad de la información.

b) Renovación del programa informático que posibilite una publicación diferenciada del primer tomo del «Atlas de las variedades locales del Vascuence».

ce/Euskararen Herri Hizkeren Atlas». Los trabajos tienen una duración de un año por lo que durante el 2003 se acometerá la primera mitad de dicha renovación.

c) Iniciación de los trabajos de preparación de una gramática («Baztango Euskalkiaren Gramatika») de una de las variedades del vascuence en Navarra.

d) Elaboración de un informe sobre un plan de investigaciones lingüísticas de las variedades dialectales del vascuence en Navarra.

e) Publicación de dos libros, a determinar, según criterios conjuntos entre las dos entidades.

f) Preparación de unas jornadas sobre el tema «Los dialectos del vascuence en Navarra/Nafarroako euskalkiak».

g) Cuantos de común acuerdo se determinen.

1.2. Las demás actividades de carácter general que desarrolla la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia y que, sirven de soporte a las anteriores.


2. Para la realización de las tareas descritas el Gobierno de Navarra destinará a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en el año 2003 hasta 134.600 € que se abonarán a cargo de la partida presupuestaria 43000-4816-455100, denominada «Acuerdo con Euskaltzaindia» de los Presupuestos Generales del Gobierno de Navarra del 2002 prorrogados para el 2003, una vez se haya firmado el Acuerdo para el 2003.

Para que así conste lo acordado se suscribe este documento por triplicado.

En Pamplona, a 3 de julio de dos mil tres.



Pedro Pegenaute Garde,
DIRECTOR GENERAL
DE UNIVERSIDADES Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Jean Haritschelhar Duhalde,
PRESIDENTE DE LA REAL
ACADEMIA DE LA LENGUA
VASCA/EUSKALTZAINDIA